# GETXOKO INGURUMEN ARETOKO ABENDUKO PROGRAMAZIOA

## ABENDUAK 1

### ORIENTING

Orienting motako jarduera autogidatua da. Helburu nagusia mapa bat interpretatzen eta iparrorratz bat maneiatzen ikastea da, ibilbide bat koordenatu batzuen bidez eginez. Jarduera Ingurumen Aretoan hasten da. 5 euroko fidantzaren truke behar diren material guztiak emango dira (jarraibideak eta iparrorratza). Ekintzaren hasieran puntu bakoitzari dagokion informazioa luzatuko zaie parte-hartzaileei . Jarduerak 1´5 ordu inguruko iraupena du, eta bi modalitate daude: erraza (8 urtetik gorako umeek parte har dezakete) eta zaila (honetan 12 urtetik gorako umeek parte har dezakete).

4 txanda egingo dira: 10:15, 10:45, 11:15 eta 11:45etan. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 6

### YINCANA 2.0.

Ginkana 2.0. autogidatuarekin familiek eta lagun taldeek (8 urtetik aurrerantz) hezegunea ezagutzeko aukera aparta izango dute hainbat joko eta ekintzaren bidez. Parte hartzaileek proposatutako puntuetan gelditu beharko dute eta horietako bakoitzean froga bat burutu.

Jarduerak 2 ordu inguru irauten du. Ekintza hasteko ordutegiak: 10:15, 10:30, 10:45 eta 11.00. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 7

### STREET ESCAPE: GELDIARAZI INBADITZAILEAK!

8 urtetik gorakoentzako abentura jokoa da. Parte-hartzaileek hainbat enigma eta buru-hausgarri deszifratu beharko dituzte Arkaitzi laguntzeko. Izan ere, biologo oso despistatua da, eta espezie inbaditzaile bat autoktono batekin nahastu du. Jarduera honen bidez, espezie exotiko inbaditzaileek sortzen dituzten arazoak ezagutaraziko dira, baita gure inguruko espezie batzuk ere. Ohiko Escape Room-etan ez bezala, gainditu beharreko probak, pistak, objektuak eta enigmak ez daude gela bakar batean, espazio ireki batean baizik. Beraz, parte-hartzaileak Ingurumen Aretoko hainbat espaziotatik mugitu beharko dira 4 espezie exotiko inbaditzaileren izenak aurkitu arte. Horrela, Arkaitz biologoaren tranpan erori den animalia autoktonoa askatu ahalko da . Ordubete baino lehen egin ahal izango duzue?

Hiru txanda egingo dira: 10:15, 11:15 eta 12:15. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 8

### ELUR-OREINAK INTXAUR OSKOLEKIN

6 urtetik gorako haurrentzako eskulan tailer honetan elur-orein politak egin ahal izango dituzte Gabonetako zuhaitza apaintzeko, intxaur oskolak erabiliz.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 14

### BOLUETIK IBILBIDEA

Adin guztiei zuzendutatako ibilbidea da (10 urtetik aurrera) eta Ingurumen Aretoko hezitzaileetako batek gidatuta. Gutxi gorabehera 2 ordu eta erdian, kontserbazio-egoerarekin, biodibertsitatearekin eta gune horren kudeaketarekin lotutako hainbat alderdi aztertuko dira.

Jarduera 10:30ean hasiko da Ingurumen Aretoan. Bertan, inguruko hegaztien argazkiak, Bolue aldeko argazki zaharrak eta foto-tranpeo bidez harrapatutako faunaren irudiak ikusi ahal izango dira. Ibilbidea 13:00etan amaituko da, hezegunean.

Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Aretotik baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 15

### NATURAN BIZIRAUTEA

Egunen batean basoan galduko bazina, bizirauteko zure gida eta naturan aurki dezakezuna soilik erabiliz bizirauteko gai izango zinateke?

"Naturan bizirautea" jarduera berri bat da, eta bertan parte hartzen duten taldeek 4 proba gainditu beharko dituzte ordubete baino gutxiagoan: orientatzen ikasi, aterpea eraiki, janaria bilatu, zauriak elementu naturalekin sendatzen ikasi eta sua egiten ikasi. Hori guztia Aretoan sortu ditugun materialak eta gidak erabiliz.

4 txanda egingo dira (10:30, 11:15, 12:00 eta 12:30). Gomendatutako gutxieneko adina: 10 urte. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 21

### ESKULAN JASANGARRIAK: GABONETAKO ZUHAITZAK ARRAUTZA-ONTZIEKIN

3 urtetik gorako txikiei zuzendutako eskulan tailer honetan, arrautza-ontziak berrerabiliko ditugu Gabonetako zuhaitzak egiteko eta, horrela, Gabonak modu jasangarriagoan ospatzeko.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 22

### FAMILIENTZAKO JARDUERA: HARTZ POLARRA BIZI DEN TOKIAN (WABI-SABI NATURA)

Murgiltze esperientzia honen bidez, galtzeko arriskuan dagoen animalia honen ilaje eta habitatean inspiratua, parte hartzaile txikiek hobeto ezagutu ahal izango dituzte berotze globalak animaliengan dituen ondorioak. Gainera, hainbat jarduera sentsorialen bidez eta material birziklatuak erabiliz hartz

polarraren berezitasun batzuk ezagutuko ditugu, klima aldaketa geldiarazteko tresna gisa kontsumo arduratsua egitearen garrantzia azpimarratuz.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

Gutxieneko adina: 3 urte.

## ABENDUAK 23

### OLENTZERO REN IKATZ GOZOAREN BANAKETA + KARTOIZKO ESKULAN IZARRA

Tailer honetan parte hartzen duten txikiek ikatz gozozko zakutxo bat jasoko dute Olentzeroren partetik. Gainera, eskulan xume bat egin ahal izango dute, kartoizko izar bat, Gabonetako zuhaitzean jartzeko.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

Gutxieneko adina: 3 urte.

## ABENDUAK 26

### BOLUEKO ZUHAITZ GALDUAK (EKOLOGIAREN MUNDUKO EGUNA)

Bolueko hezeguneko zuhaitz batzuen arrastoa galdu dugu. Aurkitzen lagunduko diguzu? Jarduera autogidatu horren bidez, parte hartzen duten pertsonek eta taldeek ekosistema honetako 5 espezie tipiko identifikatu ahal izango dituzte, hala nola lizarra, hurritza, haltza, makala edo sahatsa. Aretotik ematen diren materialak erabiliz, parte-hartzaile bakoitzak herbario sinple bat egin ahal izango du. Parte hartzen duten eta beren herbarioaren emaitzaren argazkiak partekatzen dituzten pertsona guztien artean sei hilean behin Euskal Herriko landareen gida bat zozketatuko dugu.

Jarduera autogidatu berri bat da, publiko guztiarentzat, 10 urtetik aurrera, eta beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

Ordutegia: 10:30etik 11:45era, 15 minutuko txandetan.

## ABENDUAK 26

### BOTANIKARIA EGUN BATEZ (EKOLOGIAREN MUNDUKO EGUNA)

Landareen gaia gustatzen zaizu, baina zaila egiten zaizu kaktus bat eta geranio bat bereiztea? Horrela bada, hau da zure jarduera! Botanikaren mundu liluragarrira hurbiltzeko, Ingurumen Aretotik gida digital bat bidaliko dizugu, Bolue inguruan oso ohikoak diren 8 espezieren argazki, marrazki eta bideoekin. Helburua, hezegunean zuen kabuz egingo duzuen ibilbide baten bidez, landare horiek identifikatzea eta jarduera egunean emango dizkizugun materialekin herbario sinple bat egiten hastea da. Parte hartzen duten eta euren herbarioaren emaitzaren argazkiak gurekin partekatzen dituzten pertsona guztien artean, sei hilean behin Euskal Herriko landareen gida bat zozketatuko dugu.

Jarduera autogidatu berri hau publiko guztiarentzat da (10 urtetik aurrera), eta beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

Ordutegia: 10:30etik 11:45era, 15 minutuko txandetan.

## ABENDUAK 27

### HEGAZTIEN KOLOREAK

Gure inguruko hegazti batzuek koloreak galdu dituzte. Kolore horiek berreskuratzen lagunduko diezue? Jarduera honen bidez, Ingurumen Areto inguruan pista-joko erraz bat egingo da, eta parte hartzen duten taldeek 6 hegazti misteriotsuak zein diren asmatu beharko dute, eta benetako koloreekin koloreztatu beharko dituzte. Gainera, jarduera amaitzerakoan, Baliabide Zentroko “Getxoko hegaztiak” argazki-erakusketa bisitatu ahal izango da. Gomendatutako gutxieneko adina: 6 urte.

Ordutegia: 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30 eta 13:00. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 28

### EKO-JOSTAILUAK: PANPINAK KORTXOEKIN

Ziur aski Olentzerok jostailu asko ekarri dizkigula, baina edozer gauza izan daiteke jostailua! Tailer honetan 6 urtetik gorako haurrek botila-kortxoak berrerabili ahal izango dituzte panpina dibertigarriak egiteko. Panpina horiek nahi bezala pertsonalizatu ahal izango dituzte, ilea, ponpoiak, zapatak eta beste osagarri batzuk jarriz.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

## ABENDUAK 29

### ITSU-ITSUAN NATURAN

Jarduera autogidatu berri honen bidez parte hartzaileek Ingurumen Areto inguruan esperimentazio sentsorialean oinarritutako hainbat joko dibertigarri garatu ahal izango dituzte. Ekintza honen helburua zentzumen desberdinak esnatzea da naturara hurbildu eta berarekin konektatzen laguntzeko.

Bi txanda egingo dira: 10:30etatik 11:45etara eta 12:15etatik 13:30etara. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea. Parte hartzeko gomendatzen dizuegun gutxieneko adina 8 urtekoa da.

## ABENDUAK 30

### NATURAN BIZIRAUTEA

Egunen batean basoan galduko bazina, bizirauteko zure gida eta naturan aurki dezakezuna soilik erabiliz bizirauteko gai izango zinateke?

"Naturan bizirautea" jarduera berri bat da, eta bertan parte hartzen duten taldeek 4 proba gainditu beharko dituzte ordubete baino gutxiagoan: orientatzen ikasi, aterpea eraiki, janaria bilatu, zauriak elementu naturalekin sendatzen ikasi eta sua egiten ikasi. Hori guztia Aretoan sortu ditugun materialak eta gidak erabiliz.

4 txanda egingo dira (10:30, 11:15, 12:00 eta 12:45). Gomendatutako gutxieneko adina: 10 urte. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

# PROGRAMACIÓN DE DICIEMBRE DEL AULA AMBIENTAL DE GETXO

## 1 de DICIEMBRE

### ORIENTING

Se trata de una actividad autoguiada tipo orienting, en la que el objetivo principal es aprender a interpretar un mapa y a manejar una brújula. Desde el Aula Ambiental, donde comienza la actividad, se facilitarán todos los materiales necesarios (instrucciones y la brújula) a cambio de una fianza de 5 euros. La actividad tiene una duración de 1´5 horas aproximadas, y existen dos modalidades: una sencilla (a partir de 8 años) y otra de mayor dificultad (a partir de 12 años).

Los horarios para comenzar la actividad son: 10:15, 10:45, 11:15 Y 11:45. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 6 de DICIEMBRE

### YINCANA 2.0.

En esta actividad las familias y grupos (a partir de los 8 años) que participen tendrán la oportunidad de conocer el humedal de Bolue mediante juegos y actividades al aire libre. Las personas participantes tendrán que detenerse en las paradas propuestas y en cada una de ellas llevar a cabo una prueba.

La actividad dura unas 2 horas. Se realizarán 4 turnos: 10:15, 10:30, 10:45 y 11:00.Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 7 de DICIEMBRE

### STREET ESCAPE: ¡DETENGAMOS A LAS INVASORAS!

Se trata de un juego de aventura para mayores de 8 años. Los participantes deberán descifrar varios enigmas y rompecabezas para ayudar a Arkaitz. De hecho, es un biólogo muy despistado que ha confundido una especie invasora con una autóctona. A través de esta actividad se darán a conocer los problemas que generan las especies exóticas invasoras, así como algunas especies de nuestro entorno.

A diferencia de los tradicionales Escape Room, las pruebas, pistas, objetos y enigmas a superar no están en una sola habitación, sino en un espacio abierto. Por tanto, los participantes deberán desplazarse por diferentes espacios del Aula Ambiental hasta encontrar los nombres de 4 especies exóticas invasoras. Así, se podrá liberar al animal autóctono que ha caído en la trampa del biólogo Arkaitz. ¿Podrán hacerlo en menos de una hora?

Se realizarán tres turnos: 10:15, 11:15 y 12:15. Es necesario inscribirse previamente y recibir la confirmación del Aula Ambiental.

## 8 de DICIEMBRE

### TALLERES BIO-DIVER: RENOS CON NUECES

En este taller de manualidades para txikis de más de 6 años podrán hacer unos bonitos renos para decorar el árbol de navidad, utilizando cáscaras de nuez.

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 14 de DICIEMBRE

### ITINERARIO POR BOLUE

Se trata de un itinerario dirigido a todas las edades (a partir de los 10 años) y guiado por una de las personas educadoras del Aula Ambiental. En aproximadamente 2 horas y media se atenderá a diferentes aspectos relacionados con el estado de conservación, la biodiversidad y la gestión de este espacio natural.

La actividad comenzará a las 10:30 en el Aula Ambiental, donde se podrán ver fotografías de aves de la zona, así como fotografías antiguas de la zona de Bolue e imágenes de fauna capturadas mediante foto-trampeo. El recorrido finalizará a las 13:00 horas en el humedal. Es necesario inscribirse previamente y recibir confirmación del Aula.

## 15 de DICIEMBRE

### SOBREVIVIR EN LA NATURALEZA (ACTIVIDAD AUTOGUIADA)

En el caso de que un día te perdieses por el bosque, ¿serías capaz de sobrevivir únicamente usando tu guía de supervivencia y lo que puedas encontrar en la naturaleza?

"Sobrevivir en la naturaleza" es una nueva actividad en la que los grupos participantes deberán superar 4 pruebas en menos de una hora: aprender a orientarse sin brújula, construir refugio, buscar alimento, aprender a curar sus heridas con elementos naturales y aprender a hacer fuego con pedernal. Todo ello utilizando los materiales y guías que hemos creado en el Aula.

Se harán 4 turnos (10:30, 11:15, 12:00 y 12:30). Edad mínima recomendada: 10 años. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 21 de DICIEMBRE

### MANUALIDADES SOSTENIBLES: ÁRBOLES DE NAVIDAD CON HUEVERAS

En este taller de manualidades, dirigido a txikis de más de 3 años, reutilizaremos hueveras para hacer unos árboles navideños, y celebrar así de una manera más sostenible la navidad.

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 22 de DICIEMBRE

### ACTIVIDAD PARA FAMILIAS: ALLÍ DONDE VIVE EL OSO POLAR (CON WABI-SABI NATURA)

Por medio de esta experiencia inmersiva, inspirada en el pelaje y el hábitat de este animal en peligro de extinción, los y las txikis participantes podrán conocer mejor las consecuencias que el calentamiento global tiene para los animales. Además conoceremos por medio de distintas actividades sensoriales y usando materiales reciclados algunas de las peculiaridades del oso polar, enfatizando en la importancia de practicar un consumo responsable como herramienta para frenar el cambio climático.

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

Edad mínima: 3 años.

## 23 de DICIEMBRE

### REPARTO DE CARBÓN DULCE DE OLENTZERO + MANUALIDAD ESTRELLA DE CARTÓN

Durante este taller los y las txikis participantes recibirán un saquito de carbón dulce de parte de Olentzero. Además podrán hacer una sencilla manualidad, una estrella de cartón para colocar en el árbol de navidad.

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

Edad mínima 3 años.

## 26 de DICIEMBRE

### LOS ÁRBOLES PERDIDOS DE BOLUE (DÍA MUNDIAL DE LA ECOLOGÍA)

Hemos perdido el rastro de algunos de los árboles del humedal de Bolue… ¿nos ayudas a encontrarlos?

Por medio de esta actividad autoguiada las personas y grupos participantes podrán identificar hasta 5 especies típicas de los ecosistemas húmedos, como el fresno, el avellano, el aliso, el chopo o el sauce. Utilizando los materiales que se facilitan desde el Aula cada participante podrá elaborar un sencillo herbario. Entre todas las personas que participen y que compartan fotografías del resultado de su herbario sortearemos de manera semestral una guía de plantas del País Vasco.

Se trata de una nueva actividad autoguiada dirigida a todos los públicos, a partir de los 10 años, en la que es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

Horario: 10:30, 10:45, 11:00, 11:15, 11:30 y 11:45.

## 26 de DICIEMBRE

### BOTANISTA POR UN DÍA (DÍA MUNDIAL DE LA ECOLOGÍA)

¿Te gusta el tema de las plantas, pero te cuesta diferenciar un cactus de un geranio? ¡Esta es tu actividad, para acercarte al apasionante mundo de la botánica!

Desde el Aula te enviaremos una guía digital con fotografías, dibujos y vídeos de 8 especies distintas muy comunes por la zona de Bolue. El objetivo es identificar estas plantas mediante un itinerario autoguiado por el humedal, y comenzar a elaborar un sencillo herbario con los materiales que te daremos en el Aula el día de la actividad. Entre todas las personas que participen y que compartan fotografías del resultado de su herbario sortearemos de manera semestral una guía de plantas del País Vasco.

Se trata de una nueva actividad autoguiada dirigida a todos los públicos, a partir de los 10 años, en la que es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

Horario: 10:30, 10:45, 11:00, 11:15, 11:30 y 11:45.

## 27 de DICIEMBRE

### LOS COLORES DE LAS AVES

Algunas de las aves de nuestro entorno han perdido los colores, ¿nos ayudáis a devolvérselos?

Mediante esta actividad, que consiste en un sencillo juego de pistas por las inmediaciones del Aula Ambiental, los grupos participantes tendrán que descubrir cuáles son las 6 aves misteriosas y colorearlas tal como son. Además para finalizar la actividad podrás visitar la exposición fotográfica "Las aves de Getxo" del Centro de Recursos. Edad mínima recomendada: 6 años.

Horario: 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30 y 13:00. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 28 de DICIEMBRE

### ECO-JUGUETES: MUÑECOS CON CORCHOS

Seguramente Olentzero nos habrá traído muchos juguetes, pero ¡cualquier cosa puede ser un juguete! En este taller los y las txikis de más de 6 años podrán reutilizar corchos de botellas para hacer divertidos muñecos, que podrán personalizar a su gusto, colocándole pelo, pompones, zapatos y otros complementos

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 29 de DICIEMBRE

### A CIEGAS EN LA NATURALEZA

Mediante esta nueva actividad autoguiada las personas participantes podrán desarrollar en el entorno del Aula Ambiental una serie de divertidos juegos basados en la experimentación sensorial. El objetivo de esta actividad es despertar los diferentes sentidos para acercarnos a la naturaleza y ayudarnos a conectar con ella.

Se realizarán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

La edad mínima que os recomendamos para participar es de 8 años.

## 30 de DICIEMBRE

### SOBREVIVIR EN LA NATURALEZA (ACTIVIDAD AUTOGUIADA)

En el caso de que un día te perdieses por el bosque, ¿serías capaz de sobrevivir únicamente usando tu guía de supervivencia y lo que puedas encontrar en la naturaleza?

"Sobrevivir en la naturaleza" es una nueva actividad en la que los grupos participantes deberán superar 4 pruebas en menos de una hora: aprender a orientarse sin brújula, construir refugio, buscar alimento, aprender a curar sus heridas con elementos naturales y aprender a hacer fuego con pedernal. Todo ello utilizando los materiales y guías que hemos creado en el Aula.

Se harán 4 turnos (10:30, 11:15, 12:00 y 12:30). Edad mínima recomendada: 10 años. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.